



CASA DE LAS MUJERES DE DONOSTIA
DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

UDAKO SARGORIARI (EDO EURIARI) AURRE EGITEKO IRAKURGAIK

LECTURAS PARA HACER FRENTE AL BOCHORNO (O LA LLUVIA) DEL VERANO

LECTURAS PARA HACER FRENTE AL BOCHORNO (O LA LLUVIA) DEL VERANO

Mertxe Tranche nuestra "profa" de literatura de los grupos en castellano de la Casa de las Mujeres de Donostia nos hace una selección de libros para leer este verano tumbada en la playa, en tu rincón favorito o en una hamaca allá donde hayas decidido ir. Como extra, nos deleita además, con sus reseñas personales.

LAS RETRASADAS

Jeanne Benameur. ÁRDORA

Un libro encontrado por casualidad en la Feria del Libro, sin ninguna recomendación o reseña en ningún medio y que, sin embargo, es lo mejor que he leído este año. Una madre y su hija, una maestra y su alumna, la lealtad y el amor por las palabras son los mimbres con los que nos deslumbra Benameur. Y, de paso, descubrimos una editorial pequeña e interesante. Menos de 100 páginas, fácil de llevar a la playa, pero inolvidable.

AÚN NO SE LO HE DICHO A MI JARDIN

Pía Pera

Los jardines son la posibilidad de co-crear con la naturaleza, un espacio de mediación que huye del dominio. Por eso han sido lugares femeninos, cercanos a la casa, pero en el exterior. En este libro lleno, a pesar de todo, de asombro y alegría, Pía Pera se despedía del suyo y nos enseñaba una lección sobre el arte de soltar.

LA TRASTIENDA

Uxue Alberdi. Consoni

La labor que está haciendo Consoni al traducir con gran calidad a algunas de las autoras euskaldunes más interesantes del panorama merece una reseña y una visita. Este libro es, además, un nuevo intento de Alberdi de renovar la narrativa sobre el pasado inmediato de Euskadi. El relato de las voces que nos hablan nos hará hacer memoria, pero también reflexionar y, en ocasiones, sonreír.

EL ARTE DE PERDERSE

Rebeca Solnit. Capitan Swing

Los ensayos no son para el verano, dicen, aunque algunos resisten muy bien el calor y hasta refrescan. Es el caso de los que escribe Solnit, siempre cinco minutos por delante de nosotras, para anunciarnos los movimientos profundos de nuestras vidas. Por tanto, cualquiera de sus textos podría valer, pero esta guía sobre el arte de estar perdida puede sustituir a la de viajes con mucha ventaja.

EL INVENCIBLE VERANO DE LILIANA

Cristina Rivera Garza. Penguin libros

Una historia sobre el dolor de perder a una hermana, víctima de un feminicidio veinte años atrás, pero también una historia sobre el poder del movimiento feminista para conquistar algunas palabras y, con ello, cambiar la realidad. Imprescindible.

OTOÑO

Ali Smith. Nórdica libros

Si algo nos salvará, será, creo, la amistad. La que se cuenta en esta novela es poco convencional, pero llena de inteligencia. Y algunas escenas y personajes secundarios están llenos de gracia, de acierto y de buena literatura.

ANHELO DE RAÍCES

May Sarton. Gallo nero

La poeta americana cuenta en este pequeño libro el proceso de su traslado en los años 50 a un pequeño pueblo de la América rural y la conquista de su casa. Balsámico, fue la palabra que usaron algunas Ventaneras para describirlo. Y sí, lo es, además de profundo y hermoso.

Mertxe Tranche
Donostia, 15 de junio de 2022



UDAKO SARGORIARI (EDO EURIARI) AURRE EGITEKO IRAKURGAIK

Uda aldian batzuek irakurketarako denbora gehixeago izaten dugu, eta askotariko lekuetan hartzen gaitu irakurraldiak: etxeo giroan, kalean, hondartzan, parkean, mendi aldean... Beste batzuek, aldiz, uda aldia dute lan bizirako garai, eta aukera gutxi dute irakurketan atseden hartzeko, baina arnasaldi horiek hartzeko aukera duzenentzat ere proposatzen ditugu irakurgai zerrendak, irakurgai asko poltsan erraz eramateko modukoak direlako, eta tarte laburretan gozatzeko modukoak. Irakurgai gehienak aurten Donostiako Emakumeen Etxean gidatu ditudan euskarazko literatura taldeetan landurikoak dira.

ARNASALDI LABURREKO IRAKURRALDIK

Aldika, une laburretan eta atalka goza daitezkeen irakurgaiak:

Oihana Arana, LAZUNAK AZKAZALETAN, Susa, 2021.

Poema bilduma honetan Oihana Arana poetak hainbat kontzeptu erroto eta egonkor birpentsatzen eta arrakalaten dira, horien artean, etxearena. Etxea espazio emozionala da, hartu-emanen gune gatazkatsu, baina batzuetan amultsu ere, eta berregin, desegin eta berregituratu daitezkeen espazio emozional bat. Betikotasunari bizkar emanda, eguneroko objektuek, harremanek eta hitzek sorturiko zirrikituak birpentsatzera garamatza, prekaritatea ardatz duen gizarte batean mundu ikuskerak berrasmatzeko saioak egiteko, identitate nomadei bide egiteko. Ahots poetiko sendo bat gorpuztu du Oihana Aranak, sinbolo indartsuz, irudi iradokitzailez eta hitz joko mamitsuz josia.

Aintzane Usandizaga eta Aran Santamaria(IA) GUZTIA MOZTU ETA ITSAS DAITEKE, Esther Ferrer eta denbora, Pamiela, 2021.

Album ilustratu honetan Esther Ferrer sortzailearen ibilbide estetiko-performatiboa ezin hobeto irudikatu dute Aintzane Usandizaga idazleak eta Aran Santamaria ilustratzaileak. Albumaren zirrikitu guztietan interpretaziorako eta pentsamendurako gonbitea egiten zaigu, hitzaren eta irudiaren arteko osagarritasun bikainak narrazio iradokitzaile bat eratzen baitu, eta horretarako, Esther Ferrer sortzaileak gorpuzturiko ikuskera artistikoaren arrastoak ageri dira non-nahi: aulkiak, hariak, zenbakiak, gorpuztasuna... Izenburutik bertatik collageari egiten zaio dei, eta hiru sortzailearen estetikak eta mundu ikuskerak gurutzatu dira album berezi honetan: Esther Ferrer sortzailearen artefaktu eta performantzeak, Aintzane Usandizagaren hitz narratibo-poetikoa eta Aran Santamariaren artefaktu artistikoen sotiltasuna eta konposizio sinbolikoa.

Garazi Arrula, GU ORDUKO HAUEK, Txalaparta,

Garazi Arrula tafallarraren lehen narrazio bilduma honetako narrazio guztietan izan bada halako alderatze bat iraganeko nortasunen eta oraingo nortasunen artean. Narrazio guztietan bada pertsonaien mundu-ikuskeran halako urratze bat, gehientsuenetan inozentzia galeraren batekin lotura duena: inozentzia galtzen dute batzuek, gizarteko joko-arauen injustiziez ohartzen direlako; inozentzia galtzen dute beste batzuek, euren jarrera zein joera batzuetan makurkeria sumatu dutelako; inozentzia galtzen dute bestetuek, harremanik maiteenak gorrotagarrienak bilaka daitezkeela ohartzen direlako; inozentzia galtzen dute hurrenek, maite zuten guztiak zentzua galtzen duelako; eta abar. Zehazki, urratze horiek bihurtzen dira kasu gehienetan narrazioaren muin edo korapilo nagusia, kontzientzia-hartze hori, esnatze hori, errealitateak emandako zaplazteko hori. Giza makurkeriaz ohartzea, norberaren makurkeriaz ohartzea, edo norabide "zuzenik" baden ere zalantzan jartzea. Pertsonaien kontraesanetan bidaiatuko du irakurleak, laburrean izanik ere nortasun konplexuak irudikatzea lortu baitu Garazi Arrulak.

Kattalin Miner, EMPAR PINEDA ERDOZIA: GORPUTZAK HALA ESKATUA, Hernaniko Udala - Berdintasuna, 2020.

Empar Pineda hernaniarraren borroka ibilbideetara hurbiltzen gaitu Kattalin Minerrek liburuxka honetan. Geure genealogia feministak anizteko, berrikusteko eta birpentsatzeko liburuxka ederra da, bere motzean memoria kolektiboa elikatze hainbat borroka mugari eta hainbat anekdota esanguratsu biltzen dituena. Gehiago jakiteko gogoz uzten zaitu, geure genealogia feministetan gehiago arakatzeko gogoz, eta jakin-min hori sustatzeko amu ederra da.

Mari Luz Esteban, ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA, Pamiela, 2019.

Zahartzeaz eta batik bat andrezahartzeaz mintzo zaigu Mari Luz Esteban manifestu kutsuko poema-bilduma honetan. Zahartzaroari loturiko erreferente premiaz hitz egiten digu, geure andrezahar erreferenteak bilatzeko deia ere badena. Bestalde, zahartzeko moduen inguruan gogoeta egin beharaz mintzo da, eta batik bat etorkizuneko andrezaharraren imajinarioak irudikatze Saioa egiten du, gaur egunetik etorkizuna irudikatzeari ekin diezaiozun, bestelako andrezahartzeak kolektiboki birpentsa ditzagun.

ARNASALDI LUZEKO IRAKURRALDIK

Miren Amuriza, BASA, Elkar, 2018.

Nortasun handiko protagonista baten azken bizi-arora hurbiltzen gaitu Miren Amurizak nobela honetan. Sabina Gojenola Altzerreka baserrian bizi da, eta gorputza minduta eta arrakalatuta duen arren, nortasun bizikoa da, baserria bizitzaren ardatzetariko bat izanik. Sabina protagonista indartsu horren korapiloak nobelara ekarrita, askotariko gaiak jorratu ditu Miren Amurizak: zaintza, zahartzaroa, heriotza, habiak eta etxeak, familia egitura...

Yurre Ugarte eta Joseba Larratxe, JOANA MAIZ, Harriet Edizioak, 2019.

Komiki honetan Joana Maiz pertsonaiaren une pertsonal eta profesional korapilatsu bat kontatzen zaigu. Joana Maiz gidoigilea da, eta Euskal Herriari buruzko dokumental bat egin nahi du, eta Abiadura Handiko Trenaren ondorioz baserria galtzearen adineko andre baten lekukotzak bildu nahi ditu, memoria kolektiboari begiratzeko beste ertz batzuk eraikitze. Bilaketa horretan ari dela, hurbileko lagun, ezagun, erreferente eta senideen inguruko ibilbide pertsonal zenbait ere aurkezten dizkigu, askotariko ahotsez osaturiko puzzlea josteko.

Ursula K. Le Guin, OIHAN HITZEAN MUNDUA, Igela, 2021.

Ursula K. Le Guin zientzia fikzio feministaren idazle mugartiariko bat da. 1976. urtean argitaratu zuen Oihan hitzean mundua nobelaren bertsio luzea. Vietnamgo Gerraren oihartzunak badira nobelan, izan ere, Ursula K. Le Guin gerra horren kontrako aktibista izan baitzen. New Tahiti planetan kokatzen da nobela, basoz estalitako planeta batean. Han gizakien kolonia bat dago eta Lurrera egurra bidaltzen dute. Egurak planetan balio handia du. Zoritxarrez, gizaki horien lana New Tahitin ondorio latzak uzten ditu: planetaren uharte handienetariko bat basogabetuta dago. Planetan ere gizaki antza duten izakiak bizi dira: crichyak. Gizakiek humanoide horiek esklabu moduan erabiltzen dituzte. Biolentzia horren aurrean humanoideek modu berean erantzuten ikasi dute. Selver izeneko liderraren gidaritzapean gizakien aurkako errebolta hasiko da.

Leslie Feinberg, BORROKALARI TRANSGENEROAK. HISTORIA EGINEZ,

JOAN ARC-EKOTIK DENNIS RODMAN-ENGANAINO, Katakarak, 2021.

Leslie Feinbergekin saiakeran trans genealogiaren bilaketa pertsonalaren berri ematen digu, eta trans jendearen eta ikuspegiaren arrasto historiko zein kulturalak biltzearekin batera, transgeneroaren inguruko mundu ikuskera anizteko hainbat gogoeta ere egiten ditu, eta begirada interseksionalak eraikitze gako funtsezko zenbait eskaini ere. Genealogia transfeministak eraikitze funtsezko obra da, baita geure genealogia transfeminista horiek ere eraikitze deia ere.

Marina Sagastizabal, HIRUKI GATAZKATSUA, Lisipe, 2020.

Marina Sagastizabalek egungo zaintzaren krisia ulertzeko funtsezko gogoeta zenbait biltzen ditu saiakera honetan, eta horretarako hiruki gatazkatsua ideia ardazten du. Hiruki gatazkatsu hori gure egunerokoan gurutzatzen diren hiru dimentsioren artikulazioan oinarritzen dela adierazten du: etxeo eta zaintza lanak, ordaindutako lana eta parte hartze soziopolitikoa. Hiru dimentsio horiek uztartzeko mugez eta aukerez mintzo zaigu, eta gutako norberak eta geure komunitateak hiru dimentsio horiekiko dituen harremanak aztertze gako baliagarriak eta ikuskera baliagarriak eskaintzen dizkigu.

